

Etxea

Gidoia eta irudiak: **Paco Roca**
Itzulpena: **Bego Montorio**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2024
Kolorea. Azal gogorra
136 orrialde. 24 x 17 cm. 18 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-16251-63-6

2. edizioa

IRAGANAREN ZANTZUA

Urteen urteez, oroigarri eta oroitzapenez bete du jabeak etxea, bere bizitzaren lekuko isila den etxe hori. Era berean, etxearen irudikoa da jabea. Beti elkarrekin bizi izan diren bikoteen antzera. Eta hala, han bizi dena behin betirako desagertzen denean, etxearen barrukoa gelditu egiten da, hautsak hartuta, jabea noizbait itzuliko ote den.

> Fernando Marías idazlearen ustetan "aitak eta semeak elkarrekin egindako **azken txango zirraragarria** da" Paco Rocaren lan hau

Kontakizun honetako protagonista diren hiru neba-arrebak familiaren etxera itzuli dira, aita hil eta urtebetera. Hura saltzeko asmoa dute, baina oroitzapenei aurre egin beharko diete, botatzeko trasteren bat hartzen duten bakoitzean. Beldur dira ez ote diren iragana alboratzen ari; aitaren oroitzapena, baita eurena ere. Oihartzun autobiografikoak adi daitezke Paco Rocaren azken lan honetan, gertutik bizi izan duen egoera bat kontatu beharrak eragindakoak, *Zimurrak* obran gertatu zitzaion moduan.

Fernando Marías idazleak honoko hau azpimarratu du: "arrisku handia da egilearentzat sekuentzia gogoangarri batez abiatzea obra. Irakurlea jabetu egiten da, eta indar horri eusteko ez ezik, zirkulu perfektuaren itxierara bidera dadin exijituko du. *Etxeak*, maitasunez eta egiaz betea, lortu egiten du". Maríasen esanetan, gainera, komikigile valentziarraren azken lan hau "aitak eta semeak elkarrekin egindako azken txango zirraragarria da, baita Paco Rocari Denbora marrazteko aukera eman dion liburua ere; joan doan Denbora, edo joan egin zena, edo joango dena".

ASTIBERRI
WWW.ASTIBERRI.COM
facebook.com/astiberri @astiberri astiberri_ediciones
Apdo. 485. 48080. Bilbao • Tel.: 689 213 317 • prensa@astiberri.com

EL AUTOR

Paco Roca (Valentzia, 1969) Valentziako Escuela de Arte y Superior de Diseño-n ikasi zuen eta jardun nagusia komikigintza duen arren, ilustrazioekin, hitzaldiekin eta mintegiekin uztartzen du.

Komikiei dagokienez, hamahiru herrialdetan itzuli dira haren lanak. Astiberrik argitaratu dituenen artean azpimarratzekoak dira, besteak beste, *El juego lúgubre* (2001)*; El Faro* (2004)*; Arrugas* (2007) *(Zimurrak, 2007); Las calles de arena* (2008)*; El invierno del dibujante* (2010)*; Memorias de un dibujante en pijama. El integral* bilduma, non jasotzen baitira *Las Provincias* egunkarian eta *El País Semanal* astekarian plazaratutako orrialdeak –hiru ataletan argitaratu ziren: *Memorias de un hombre en pijama* (2011), *Andanzas de un hombre en pijama* (2014) eta *Confesiones de un hombre en pijama* (2017)–*; Los surcos del azar* (2013)*; La casa* (2015) *(Etxea,* 2015)*; La encrucijada* (2017) José Manuel Casañ (Seguridad Social) musikariarekin elkarlanean*; El tesoro del Cisne Negro*, Guillermo Corralen gidoiarekin; *Regreso al Edén*, eta, azkenik, *El abismo del olvido (Ahanzturaren leizea*). *El dibujado*ren (2019) egilea ere bada: hasiera batean Arte Modernoko Valentziako Institutuko (IVAM) hormetarako sortu zuen, eta 2021ean liburu bilakatu zen.

Zenbait sari eskuratu ditu, hala Espainian nola Espainiatik kanpo; besteak beste, 2008ko Espainiako Komikiaren Sari Nazionala, gidoi egokitu onenaren Goya saria 2011n Arrugas filmagatik, Japoniako Excellence Award, San Diegoko Comic Con-aren Inkpot Award 2019an edo atzerriko lan onenaren Eisner saria 2020an. Paco Rocaren zenbait komiki zinemara eta telebistara eraman dituzte, hala nola *Arrugas* (Ignacio Ferreras, 2011), *El tesoro del Cisne Negro* (Alejandro Amenábar, 2021) edo *La casa* (Álex Montoya, 2024).

Ilustratzailea den aldetik, kartelak, liburu azalak, horma-irudiak eta kanpaina sozialak sortu ditu era guztietako ekitaldi, argitalpen eta bezeroentzat, batez ere gobernuz kanpoko erakundeentzat.

Hitzaldiak eta tailerrak ematen ditu mundu osoan, eta Espainiako nahiz Espainiatik kanpoko aretoetan erakutsi izan da bere lana. Paco Rocak Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioaren Arte Ederretako Merezimenduaren Urrezko Domina jaso zuen 2021ean, eta 2023an Kultura Merezimenduaren Ciutat de València saria eman zioten.

EGILE BERAREN BESTE LAN BAT EUSKARAZ:

Zimurrak
2. edizioa
104 orrialde. 15 euro
ISBN: 978-84-15685-70-8


HORREGATIK BA... APUR BAT KONPONDU NAHI DUGU NEBA-ARREBON ARTEAN.
EA ZABAR ITXURA HORI KENTZEN DIOGUN ETA EROSLE BAT AURKITZEN DUGUN.
PENA DA GERO... ZUEN AITAK TXUKUN-TXUKUN ZEUKAN DENA.
ZEOZERTAN LA-GUN BADEZAKET...
EGIA ESATEKO, BIHAR ZUHAITZ BATZUK INAU-SI NAHI NITUEN, BAINA EZ NAIZ AUSARTZEN.
GEHIEGI MOZTU ETA BONSAIAK EGITEKO BELDUR NAIZ.
LAGUNDUKO DIZUT, JAKINA.
EKIN BEHAR DIO-ZUNEAN, DEITU.
GAUGIRO EDERRA DAGO.
LEHEN ALDIA DA HEMEN ETZANDA NAGOELA EZER EGIN GABE.
MMM... HAU JAZMIN USAIN GOXOA.

BETI GENUEN AITA DEIKA, ZERBAIT EGITERA JOATEKO.
HARK EZ ZUEN EGONEAN EGOTEA MAITE.
ETXERA ETORTZEA, NIRETZAT, LAN BEHARTUETAKO ESPARRU BATEAN SARTZEA ZEN.
EMATEN DIT AITAK EDOZEIN MOMENTUTAN DEITUKO DIDALA, ALTXATU ETA ZERBAITETAN LA-GUNTZERA JOAN NADIN.
FFFFFFFFFFFFFFFF
HARA, AITARENGAN PENTSATZEN JARRI, ETA AZKEN HILABETEA BAINO EZ DATORKIT GOGORA: DEPRIMITUTA, BESAULKIAN ESERITA, EZERTA-RAKO GOGO GABE.
ORDURAKO EZ ZEN BERA. ZUEN AITA ARGAZKI-ETAN ERE EZ ZEN GELDIRIK EGOTEN; MUGITUTA ATERATZEN ZEN BETI.
HORREGATIK EZ DUT ULER-TZEN. BORROKA-LARIA ZEN ETA.
SUSPERTZEN ARI ZEN; MAKULUAK UTZITA, GOGOTSU ZEBILEN...
HALAKO BATEAN BERE BURUA HILTZEN UTZI ZUELA EMATEN DU.
NEKATU EGINGO ZEN BORROKAZ.

EZ EMAN BUEL-TA GEHIAGO.
BARRURA NOA. HOZTEN HASI DA ETA.
KAPITULUA AMAITU ETA BANATOR.
FFFFFFFF
JOSSSSÉ
JOSÉ...
ZATOZ, LAGUNDU HONEKIN.
TXABOLA BAT JARRIKO DUT HEMEN, BARBAKOAK EGIN AHAL IZATEKO.
AITA...
ZERGATIK ETSI ZENUEN?


...LOTSA EMATEN DIT, BAINA EZER GUTXI DAKIT AITAREN JATORRIAZ.
EZ NION GALDETU.
BAINA KALETARRA ZEN.
HALERE, HEMEN EGOTEA, ORTUA ZAINTZEN IBILTZEA MAITE ZUEN GEHIEN.
INOIZ ESAN ZUEN AITONA HERRI BATEKOA ZUELA, BAINA EZ DAKIT NONGOA.
AITAREN AITA ERE HAN JAIOTAKOA ZEN.
VICENTE, JOSÉ ETA CARLA
AITAK ETXE HAU EGIN ZUEN BERE AURREZKIEKIN.
ETA ORAIN, ETXEA GU HIRU NEBA-ARREBONA DA.
AITONA HIL ZENEAN, GURE AITAK LURSAIL HORREN PARTE BAT HEREDATU ZUEN.
AITA AMAREKIN EZKONDU ZEN, AMPAROREKIN.
MIGUELEK DESTAJUAN EGITEN ZUEN LAN, FAMILIA UGARI HURA AURRERA ATERA AHAL IZATEKO.
BIZITZA OSOKO AURREZKIEKIN, AITONAK LURSAIL BAT EROSI ZUEN BERE GURASOEN HERRITIK GERTU. AGIAN, JATORRIETARA ITZULTZEKO ASMOTAN, EDO, BESTERIK GABE, SEME-ALABEI LAGATZEKO AITAK BERARI LAGA EZIN IZAN ZIONA.
EZKONDU ETA SEI UME IZAN ZITUEN. EMAZTEA ATEZAINA ZEN.
MIGUEL
MIGUEL SOLDADUS-KARA JOAN ZEN, ETA AMAITU ZUENEAN, HIRIAN GERATU ZEN, HERRIAN BAINO ETORKIZUN HOBEA IZANGO ZUELA-KOAN.
ALBERTO
ROCÍO
ALBERTO
AITONA HARK ALBERTO ZUEN IZENA. IKAZKINA ZEN. ETXE BAT ZUEN, ORTU TXIKI BATEKIN...
HIRU UME IZAN ZITUEN: ALBERTO, ROCÍO ETA MIGUEL, AITAREN AITA.
AITAREN NEBA-ARREBAK HERRIAN GERATU ZIREN. NAGUSIAK ETXEA HEREDATU ZUEN, ETA GERO GALDU, ZORRAK ZIRELA MEDIO.